



**Nola adierazi  
ESKUBIDEAK, DEBEKUAK  
eta BETEBEHARRAK**

Administrazioko testuetan, sarritan adierazi behar izaten ditugu eskubideak, debekuak edo betebeharrak. Horretarako zenbait aukera daude, baina testu osoan zehar forma bakarra errepikatzen badugu, astuna egingo zaio irakurlari. Beraz, komeni da beti forma bera erabili beharrean, aukera ezberdinez baliatzea.

Eta zeintzuk dira aukera horiek? Bada, hona hemen batzuk:



1

**ESKUBIDEAK**  
adierazteko



**ahal izan**

Adierazitako dokumentuak aurkeztea ezinezkoa denean, behar bezala justifikatzen bada, deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu **ahal izango da**.

**ahalera**  
(daiteke bezalako aditzak)

Epai batekin ados ez dagoen edonork errekurtsioa jar **dezake**, eta berrikusteko eskatu.

**aukera izan**

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun izateko betekizunak betetzen ez dituzten onuradunek **aukera izango dute** ardurapeko seme, alaba edo adingabeagatik Gizarte Segurantzak egiten duen diru-esleipenaren sistemara itzultzeko.



**eskubidea izan**

Enpresan lan egiten duten lehen urtean, urte horretan lan egindako denborari dagokion opor-zati proportzionala soilik baliatzeko **eskubidea izango dute** langileek.

**utzi**

2. paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz, interesdunek edozein unetan ezagutu ahaliko dute prozeduraren izapidetze-egoera, eta adierazitako toki eta orduan **utziko zaie** hura ikusten.



**libre izan**

Deialdiaren oinarrietan adierazten da azterketariak **libre izango dutela** azterketa praktikora behar duten materiala eramatea.

**zilegi izan**

Hondamendietan, arrisku kolektibo larriko kasuetan, eta beharrian muturreko eta urgenteko egoeretan, **zilegi izango da** bizilekuan sartzea baldin eta pertsonak zein gauzek berehalako kalte larriak jasan ditzaten eragozteko bada.



2

**DEBEKUAK**  
adierazteko



**geroaldia**

Fitxategi horren xedea negozio-harremana kudeatzea eta gure zerbitzuei buruzko informazioa ematea da. Datu horiek ez zaizkio beste inori helaraziko.

**ezin izan**

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, **ezin izango da** diru-esleipenerako beste eskabiderik aurkeztu desgaitasunik ez duen edo % 33 baino desgaitasun txikiagoa duen ardurapeko seme, alaba edo adingabeagatik.



**ahal izan ezezkoan**

Proba amaitu ondoren, hautagaiek ez dituzte azterketa-ereduak atera **ahal izango**.

**eskubiderik ez izan**

Erakusketariak ez dute kalte-ordainik jasotzeko **eskubiderik izango** baldin eta Euskalduna Jauregiari edo ekitaldiaren zuzendaritzari egotzi ezin zaion zernahi kausa dela-eta ekitaldiaren deialdia bertan behera utzi behar bada edo ospakizunaren data aldatzen bada.



**debekatu, galarazi**

*Debekatuta* dago sexua edo adina direla-eta edozein diskriminaziorik eragitea, bai eta, sexua edo adina direla-eta, enpresan antzeko lanpostuetan diharduten langileei ordainsari desberdina ematea ere.

*Galarazita* dago sarrerak edo abonamenduak errekarguarekin birsaltzea, ezkutuan saltzea eta, aurreko artikuluaaren arabera baimenik ez badu, komisiorekin saltzea.

**ez utzi**

Aurreko artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, jokatzeko debekua duten norbanakoei **ez zaie utziko** web-orrialdeetan jokalaria-kontua irekitzen ezta erregistratzen ere.



**libre ez izan**

Zerbitzu publikoa emateko zehaztu diren baldintzen artean jasotzen da **ez dela libre izango** bidaiariak hartu eta uztea jatorrizko edo helmugako geltokiak ez diren geltokietan.

**zilegi ez izan**

Kontratazio-mahaietako eta adituen batzordeetako kideen kargua argitaratu beharko da, eta **ez da zilegi izango** aipamen orokorrak edo zehaztugabeak egitea, edo bakar-bakarrik aipatzea kide haiek ordezkatzeko edo lan egiten duten administrazioa, erakundea edo entitatea.



3

**BETE BEHARRAK**  
adierazteko



**-go/-ko + aditz laguntzailea**

Euskararen eta gaztelaniaren erabilera lege honetan agindutakoari eta Lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlearitzak eman ditzaketan gainerako aginduei **atxikiko zaie**.

**(behar-) beharrezkoa izan, nahitaezkoa izan**

Hitzarmena gauzatzean sortzen diren azterlan edo dokumentuak erabiltzeko, edo horietatik eratorritako argitalpen zientifikoak eta bestelakoak egiteko, **beharrezkoa izango da** aurrez sinatzaileak hartarako ados agertzea.

Betiere, **nahitaezkoa izango da** baldintza-agirian ingurumeneko baldintzak edo baldintza sozialak ezartzea, eta berrikuntzarekin lotutako kontsiderazio ekonomikoari buruzko baldintzak ere ezarri ahalko dira.



**behar / beharko**

Informatika-ezagutzak IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak aurkezteko epean alegatu eta egiaztatu **beharko** dira.

**-t(z)eko(ak) izan**

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga-erregimena eta gaiarekin lotutako bestelako proposamenak zerga-alorrean eskumena duten organoek eztabaidatu eta **aztertze**koak dira.

**-tu beharra izan**

Baldintzen agirian, entitate kontratatzaileek 1. ataleko erantzukizunpeko adierazpena **aurkeztu beharra izango** dute, eta adierazpena egiteko eredia ere ezarri **beharko** dute.



**beharturik egon, behartuta egon,  
behartuak egon**

Laugarren kapituluan, Lehiaren Batzorde Nazionalak 2007ko uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 26. artikulua araberako bete behar duen lehia sustatzeko funtzioa biltzen da; horretarako, txostenak, azterketak, ikerlanak eta proposamenak egingo ditu Batzordeak, eta hari laguntzera **beharturik egongo dira** sektore ekonomikoak eta organismo publikoak eta pribatuak.

Dekretu honetan aipatzen diren jarduerak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak **behartuta egongo dira** jendeari erakustera, argi eta garbi ikusteko moduan, honako hau dioen kartela: «Nahi duenak eskuragarri ditu erreklamazio-orriak».



**partizipioa + beharreko + izena**

Kontratua izenpetu aurretik **aurkeztu beharreko dokumentazioa** posta arrunt bidez helaraziko da dagokion sailera, gaurtik hasi eta astebeteko epean.

**elipsia**

Honako hauek dira dirulaguntza jaso ahal izateko (**bete beharreko**) baldintzak: [...]

**ez + subjuntiboa**

Protokoloak ezartzen du etxean Covid kasuren bat izanez gero, inor **ez dadila sartu** gaixoa egon den gela horretan azken garbiketa egin arte.

**agintera**

Eskatutako datu guztiak **zehaztu** eta, jarraian, eskaria **sinatu**.



[www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/](http://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/)

